

IRAGARKIAK ETA SENTSIBILITATEAK

Hementxe bertan salatu nuen behin euskal telefono konpainia autonomikoaren «Kuota, Kuota!» telebista iragarkiaren kutsu xenofobo eta indarkeriazalea. Bistan da ez zidatela kasu handirik egin Euskaltelen publizitate-arduradunek, ez asiar etorkinen eskubideen aldeko elkarteek, ezta non-nahitik datorrela ere indarkeriaren aurka eta elkarrizketaren alde aritzen diren gobernuz kanpoko erakundeek ere. Hor konpon, baina iragarki horretan agertzen den indarkeria gratuitoa eta asiarren erridikulizazioa edonork ikus ditzake; ez ditut nik asmatu.

Ezin gauza bera esan «Axe» desodorantea emanda medikuaren kontsultara doan gaztearen iragarkiari buruz. Hor emakumezko medikuak mutilari egindako felazioa ikusi zuen Madrilgo (Espainia) Medikuen Elkargoak: emakumezko medikuen (edo emakumeen eta medikuen?) duintasunaren kontrako iraina. Zeusek eta Santa Luziak gorde diezaiera bista! Zin dagizuet nik ez dudala halakorik ikusi. Gainera, felaziorik egotekotan, bi partehartzaileen oniritziarekin egindakoa litzatekeela ez dago dudarik. Non da orduan problema? Nolanahi ere, medikuen salaketak berehala ekarri zuen iragarkiaren desagerketa. Medikuen sentsibilitatea asiar etorkin eta bakezaleena baino urrakorragoa da, nonbait; edo agintari eta marka komertzialek ere begirune gehiago diote medikuen sentsibilitateari etorkinenari baino.

Eta zer esan arropa saltzaile emakumezkoen sentsibilitateari buruz? Hona iragarkia: mutila probadorean dago, kortina itxi gabe, ispiluari begira, jantzitakoa ongi geratzen zaion erabakitzen, saltzailearen iritziaren laguntzarekin. «Hauxe eramango dut»; «Bai, bai, oso ongi geratzen zaizu», edo antzeko zerbait, dio saltzaileak. Zeri buruz ari dira? «Durex. Innovación tecnológica». Ez da posible mutil bat kondoiak probatzen aritzea, zakila behar bezala gogortu gabe. Zeinek lagundu dio gogortzen, saltzaile irribarretsu hori ez bada? Ez dakit zeren zain dagoen Madrilgo «Dependientes» Elkargoa dagokionari salaketa egiteko. Ez dute medikuek duten bista, sentsibilitate eta duintasunik, ala?